# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA KULTURA SAILA

### Zk-657

47/1999 DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea onartzen duena eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatu titulua lortzeko irakaskuntzak ezartzeko baimena ematen duena.

Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea uztailaren 22ko 170/1986 Dekretuaren bidez sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Sailari atxikitako goimailako irakaskuntza-zentro gisa. Ekainaren 29ko 11/1988 Legearen bidez, erakunde autonomiadunaren izaera eman zitzaion, hau da, nortasun juridiko propioa eta bere xedeak lortzearren jarduteko ahalmen osoa izango zituen; garai hartako Kultura eta Turismo Sailari atxikita geratu zen. Gaur egun Kultura Sailari atxikita dago, urtarrilaren 4ko 1/1999 Dekretuaren 13.2 atalean xedatutakoari jarraituz. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu.

Aipatutako 11/1988 Legeak, bere gehigarrizko xedapenetako lehenengoan, SHEE Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea bultza dezan agintzen dio Eusko Jaurlaritzari; asmoa argia da, beraz: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen egitekoa izan behar du Heziketa Fisikoko goi-mailako titulazioa lortzeko irakaskuntzak eskaintzeak eta, gainera, zentro horrek juridikoki Euskal Herriko Unibertsitateari lotuta egon behar du.

Bestalde, azaroaren 27ko 1423/1992 Errege Dekretuaren bidez, Heziketa Fisikoko irakaskuntzak unibertsitatean sartu ziren, eta geroago, irailaren 24ko 1670/1993 Errege Dekretuaren bidez, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatuaren unibertsitate-titulu ofiziala ezarri zen. Horrenbestez, zentro hori unibertsitate publikoari atxiki behar zaio aipaturiko titulua lortzeko irakaskuntzak eman ahal izateko, Unibertsitate Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Legearen 58.5 atalak xedatutakoa betez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 13.1 atalak (98.07.16ko EHAA) garapenik ez duenez, atxiki-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-657

DECRETO 47/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba la adscripción del Instituto Vasco de Educación Física a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y se autoriza la implantación de las enseñanzas conducentes al título de Licenciado o Licenciada en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte.

El Instituto Vasco de Educación Física fue creado por Decreto 170/1986, de 22 de julio como un centro de enseñanza superior adscrito al Departamento de Cultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por Ley 11/1988, de 29 de junio, pasó a tener la naturaleza de Organismo Autónomo de carácter administrativo con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, adscribiéndose al entonces Departamento de Cultura y Turismo. En la actualidad se halla adscrito al Departamento de Cultura en virtud de lo establecido en el artículo 13.2 del Decreto 1/1999, de 4 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

La citada Ley 11/1988, en su disposición adicional primera da un mandato al Gobierno Vasco de promover la adscripción del IVEF a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, sentando la voluntad clara de que el Instituto Vasco de Educación Física, desarrolle en el ámbito del País Vasco las funciones docentes dirigidas a la obtención de la titulación superior en Educación Física, y que, además, el Centro quede vinculado jurídicamente a la Universidad del País Vasco.

Por otra parte, una vez que las enseñanzas de Educación Física fueron incorporadas a la Universidad por Real Decreto 1423/1992, de 27 de noviembre y, posteriormente, mediante Real Decreto 1670/1993, de 24 de septiembre, se estableció el título universitario oficial de Licenciado en Ciencias de las Actividad Física y del Deporte, este Centro, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 58.5 de la Ley 11/1983, de 25 de agosto de Reforma Universitaria, debe adscribirse a la Universidad Pública para poder impartir las enseñanzas conducentes a la citada titulación.

Debido a la falta de desarrollo del artículo 13.1 de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco

pen hori burutzeko prozedura unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu eta aitortzeko apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuaren 16. atalean ezarritakoa izango da batez ere. Errege Dekretu horretan ezartzen denaren arabera, administrazio eskudunak onartu beharko du atxikipena, Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak hala eskatuta eta Unibertsitateen Kontseiluak txostena egin ondoren; bestetik, atxikipena burutzeko beharrezkoa izango da unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatzea, unibertsitatearen estatutuekin bat etorriz.

Beraz, indarreko xedapenetan eta UPV /EHUren estatutuetan ezarritako izapideak beterik, eta ondoren aipatuko diren lege eta dekretuek xedatutakoarekin bat etorriz, bidezkoa da Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea onartzea eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatu titulua lortzeko irakaskuntzak ezartzeko baimena ematea. Hona hemen xedapen horiek: Euskal Herrirako Autonomia Estatutoaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 16. atala, Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoari unibertsitate gaietan funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzeko maiatzaren 25eko 1014/1985 Errege Dekretuarekin lotuta; eta unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu eta aitortzeko apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretua, apirilaren 7ko 485/1995 Errege Dekretuaren bidez aldatua.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak hala proposatuta eta Unibertsitateen Kontseiluak aldeko txostena emanda, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea, zeinak egoitza Vitoria-Gasteizen baitu, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea onartzea. Zentro horretan Heziketa Fisikoko lizentziatuaren titulua lortzeko irakaskuntzak emango dira, horiek amaitu arte, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatu titulua lortzeko irakaskuntzak.

*2. atala.–* Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitako unibertsitate-zentroa izanik, honako arauen bidez eraenduko da: Unibertsitate Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 6. atalak aipatutakoak; Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea sortzeko 11/1988 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legea eta hori garatzeko xedapenak; Unibertsitatearen Estatutuak; zentroaren entitate titularrak eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Uniber-

(BOPV de 16.07.98), el procedimiento para esta adscripción está regulado, principalmente, en el articulo 16 del Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre creación y reconocimiento de Universidades y Centros universitarios, donde se establece que la adscripción será aprobada por la Administración competente a propuesta del Consejo Social de la Universidad, y previo informe del Consejo de Universidades, añadiéndose, asimismo, que la adscripción requerirá la previa celebración de un convenio con la Universidad de acuerdo con lo previsto en los respectivos Estatutos universitarios.

En consecuencia, cumplidos los trámites establecidos en las disposiciones vigentes y normas estatutarias de la UPV / EHU, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en relación con lo establecido en el Real Decreto 1014/1985, de 25 de mayo, de traspaso de funciones y servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Universidades, así como en el Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre creación y reconocimiento de Universidades y Centros universitarios, ampliado por Real Decreto 485/1995, de 7 de abril, parece procedente aprobar la adscripción del Instituto Vasco de Educación Física a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea así como autorizar la implantación de las enseñanzas conducentes al título de Licenciado o Licenciada en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y de la Consejera de Cultura, previa propuesta del Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, con el informe favorable del Consejo de Universidades, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de enero de 1999.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se aprueba la adscripción a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, del Instituto Vasco de Educación Física con sede en Vitoria-Gasteiz, el cual impartirá las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos de Licenciado o Licenciada en Educación Física, hasta su extinción y de Licenciado o Licenciada en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte.

*Artículo 2.–* El Instituto Vasco de Educación Física, en su carácter de centro universitario adscrito a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, se regirá por las normas a que se refiere el artículo 6 de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, la Ley 11/1988, de creación del Instituto Vasco de Educación Física, la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco y disposiciones de desarrollo, los Estatutos de la Universidad, el convenio de colaboración académica celebrado entre la entidad

tsitateak egindako lankidetza akademikorako hitzarmena; eta zentroaren beraren antolaketa eta funtzionamendu arauak.

*3. atala.–* Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatuaren titulua lortzeko irakaskuntzak ezartzeko baimena ematea; horretarako, Unibertsitateen Kontseiluak dagokion ikasketa-plana onartu beharko du aldez aurretik.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatuaren titulua lortzeko irakaskuntzen ezarpena arian-arian egingo da, ikasturtez ikasturte, eta zentroaren atxikipenerako hitzarmenean ezarritakoari jarraituz.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea 1999/2000 ikasturtetik aurrera atxikituko zaio Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari, unibertsitate publikoei atxikitako zentroen tituluak homologatzeari buruz indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren kalterik gabe.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari eta Kultura sailburuari ahalmena ematen zaie dekretu hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten beren eskuduntzen barruan.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko urtarrilaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

titular del Centro y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, y sus propias normas de organización y funcionamiento.

*Artículo 3.–* Se autoriza al Instituto Vasco de Educación Física la impartición de las enseñanzas conducentes a la titulación de Licenciado o Licenciada en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte, una vez que haya sido homologado por el Consejo de Universidades el correspondiente plan de estudios.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La implantación de las enseñanzas conducentes a la titulación de Licenciado o Licenciada en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte se efectuará de forma progresiva, curso por curso, y de conformidad con lo establecido en el convenio para la adscripción del centro.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Sin perjuicio de lo establecido en las disposiciones vigentes sobre homologación de títulos de centros adscritos a las Universidades Públicas, la adscripción del Instituto Vasco de Educación Física a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea producirá sus efectos a partir del curso académico 1999-2000.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación y a la Consejera de Cultura para dictar dentro de sus ámbitos competenciales las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación
Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.